

JAIZKIBEL

Kantauriko talaia

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Lezotik edo Hondarribitik abiatuta, GI-3440 errepidean barrena Jaizkibel gainetara goazela, 10. kilometro puntuan

edo, Santa Barbara aldeko aparkalekura hartuko dugu. Toki hartantxe egon zen Jaizkibelgo Paradore Probintziala, 1950eko

hamarkadaren erdialdetik 1999an eraitsi zuten arte. Begiratoki zabal batekin, mahai bat dauka, 180°-ko mendi ikuspegi bikainarekin.



Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek ez du ageri nabarmentzeko moduko zailtasunik. Halaber, ez du ekipamendu berezirik eskatzen, mendi ibilietarako oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

Deskribapen laburra

Ibilbidea Hondarribiko udal mugartean igarotzen da osorik, Jaizkibel mendilerroaren ekialdeko adarrean, Gipuzkoa lurraldeko ekialdeko muturrean –eta, hortaz, Iberiar penintsularen amaiera– amaieran–.

Monumentu Maltzo kategoriarekin Ondasun Kultural izendatutako



Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Oria
Hidrologikoko Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Donejakue Bidearen Gipuzkoako kostaldeko bidean igarotzen da gure ibilbidearen trazatu osoa. Baliagarritasun publikokotzat aitortua da zeharkatzen duen ingurua, eta Europar Batasunak Kontserbazio Bereziko Eremu izendaturik dago, Natura 2000 Sarearen barruan (bioaniztasuna kontserbatzeko Europar Batasuneko eremuen sarea).

Harrigarriak dira ibilbide osoan zehar txori begiz miretsitako ikuspegiak, zuhaitzik gabeko lurretan barrena, zeinak larre estentsibotarako baliatzen baitira: alde batetik, Bizkaiko Golkoko kostaldea eta haren horizontea, eta, bestetik, Txingudiko badia eta Gipuzkoa eta Lapurdi barrualdea.

Bideak mendi arranditsu horren humanizazio lekukotza garrantzitsuak erakusten ditu, urrun geratzen zaigun historiaurrekoak zein oraindik oraintsukoak. Nekropoli primitiboak, eremu gotorrak, espazio mitologikoak eta sakralizatuak, denboraren joanarekin agertutako errealitateak eta kimerak, aldi berean urruneko eta gertuko zaizkigunak.



Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabearen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.

1999ra arte Jaizkibelgo Turismo Paradore Probintziala izan zen tokiko aparkalekuan (WP 1), Santa Barbara aldean, izen bera duen dorrerantz abiatuko gara. Berehalaxe topatuko dugu, hutsik egiteko arrisku gabe (WP 2).

Waypoint (WP)



1. Irteera



2. Dorrea



Gezileihoak dituen dorre hau liberalen bandoak altxatu zuen 1875 aldera, azken Karlismaldian (1872-1876). Ondoren, barrutik zein kanpotik berritu zuten, turismo paradorearekin batera baliatu ahal izateko. Jaizkibel mendilerroan altxatutako beste lau dorrerekin eta San Enrike gotorlekuekin batera (gailurrean bertan kokatua), Irun-Donostia korridorea zaintzeko lerroa osatzen zuen, lehendabiziko hiri hori eragiketa militar karlistetatik defendatzeko.

Inguruan duen ermita batek ematen dio izena Santa Barbara izeneko paraje estrategiko, famatu eta sakralizatu honi, zeina XVI. menderako ageri baita izen berarekin erregistratuta. Kontatzen dutenez, harriz harri eraman zuten gaur egungo kokalekura, Guadalupeko santutegiaren ingurura. Turismo Paradore Probintziala eraiki arte, antza denez, historiaurreko hainbat heriotza monumenturen kokaleku izan zen -Brontze eta Burdina Arokokoak-, eta, kontatzen dutenaren arabera, Hondarribiko sorginak elkartzen ziren tokia.



Dorre horretatik abiatzen den bideari jarraikiz, atetila bat zeharkatuko dugu handik pixka batera (WP 3), zeinak aurrez aurre dugun larre zabala babesten baitu. Barruti horren barruan ibiltzen dira larrean, ia urte osoan zehar, artaldeak, behiak eta zaldiak, erabat aske (langa ireki behar izanez gero, kontu handiz itxiko dugu atzera, zegoen bezala uzteko). Animalia horiek ohiturik daude gizakiekin. Edonola ere, oso zorrotza dute defentsarako sena; hortaz, oinez ibiltzeko arazorik ez badago ere, gomendatzen dugu bakean uztea eta ez erakartzea jaten eman aitzakian, eta are gutxiago aztoratzea. Ez baitago aurreikusterik zer erreakzio izango duten.

Bidea gailurraren lerrotik bertatik igarotzen da, eta itsaso aldera ez da arbolarik ageri. Amildegiaren ondokigarotzen da, harearrizko estratuak bistan ditugula, horiexek osatzen baitute mendi honen substratu geologikoa, hostopil erraldoi bat izango balitz bezala. Punta formarekin ebakirik eta nahas-mahas ageri diren otadi eta

lahardiek erdi ezkutaturiko arrailez josirik dago, eta biziki arriskutsua da ertzera gehiegi arrimatzea.

Amildegiaren oinarria ametzez bete-bete eginda dago – erkametz ere deitzen da espezie hori –, eta beste hainbat basa hostozabal ere ageri dira, hala nola gaztainondoak, urkiak, haltzak eta abar, han-hemenka oihanpe itxi eta nahasi batekin –basurdeen, azerien, azkonarren eta bestelako fauna ornodunaren paradisua–.

Waypoint (WP)



3. Ataka igaro eta zuzen



Orain 5.000 eta 3.000 urte inguru, artean ehizan eta bilketan jarduten zuten artzain tradizioko erkidegoek altxatuak dira trikuharriak edo jentil harriak (hots, jentilen harriak, hilarriak). Oro har, trazu angeluzuzeneko ehorzketa ganbera bat izaten dute, bloke handiz estalita, zeina, aldi berean, osorik babesturik ageri baitzen, oinplano zirkularreko harri eta lur metaketa ordenatu edo tumulu batez. Sarkofago megalitiko horien barrualdean, hildakoak ehortzen zituzten, bizi zirelarik baliatu ohi zituzten objektuekin eta ofrendekin batera, egiazko panteoiak osatuz. Jentilak euskal mitologiako pertsonaiak dira, zeinak mendietan bizi baitziren, leizeetan ezkutaturik. Egundoko indarra zuten, eta sekulako harritzarrak jaurtitzen omen zituzten urrunera jolas moduan, eta, inoiz edo behin, «kristauak» uxatzeko ere bai.

Cromlechak lurtean sarturiko harri zirkuluak dira. Baratzak, jentil baratzak edo mairu baratzak deitu izan dira. Erretze ehorzlekuak dira, abeltzaintzan jarduten zuten komunitateek eraikiak, hasi Brontze Aroaren amaieratik eta Burdin Aroan zehar (gure aroaren aurreko lehen milurtekoan, alegia). Barrualdean, hildakoak erretzetik sorturiko errautsak daude gorderik. Barrutiak batzuetan lurrearekin arrasean egon ohi dira, edo lurrez eta harriz beteta. Nahiz eta ohikoa izan isolaturik agertzea, oro har, hainbat eratako multzoak osatu izan dituzte (hainbat neurri eta eraketatakoak), eta gerta liteke zirkuluak bereizita, elkarren segidan edo binaka-binaka elkarri loturik agertzea.



JAIZKIBEL

Aurrez aurre eta alboetan panoramika paregabeak ditugula, berehalaxe iritsiko gara Jaizkibel III trikuharriaren hondarretara (WP 4), goazela ezkerretan. Parean, itsasoa 100 m eskasera dugula, mairu baratze edo cromlech multzo bat ageri da: Burdin Aroko erretze ehorzlekuak dira, Jaizkibel IV eta Jaizkibel V izenekin katalogatuak.

Handik pixka batera, irtengune arrokatu batean, bertikalean lurrean sarturiko kareharri lauza izugarri batek emango digu atentzia: 1954an instalaturiko omenaldi monolito bat da (WP 5). Aurrerago, eskuinetan, ia-ia bideari loturik, Jaizkibel IV izeneko trikuharriaren megalitoa ikusiko dugu, ehorzketa ganbera argi eta garbi ikusteko moduan duela (WP 6).



Defentsa obra horien parean hainbat errepide militar eraiki zituzten Gipuzkoan: horien artean dago GI-3440 errepidea, Jaizkibel zeharkatzen duen Lezo eta Guadalupeko gotorlekuaren artean. Langileen batailoiek eraiki zituzten: hau da, batez ere kontzentrazio-eremuko araubidean zeuzkaten preso errepublikanoek. Erregimenaren zerbitzura jardun zuten egiazko esklaboak izan ziren.

Bideari jarraituko diogu. Poliki-poliki otadi itxietan gora goazela, hegalean sarturik ageri den garai bateko bateriaren asentamendu paretik igaroko gara. Aurrealdea hainbat lubaki lerroz babesturik dauka. Gure garaikoa da, nahiz ez dakigun zehatz-mehatz noiz eraikia den. Haren helburua zen, dudarik gabe, Biosnar badiatik eta Xixurko hondartzatik ontziratzeko posibleak galaraztea, ia-ia lerrokaturik baitaude kanoi tiroarekin. Gorantz, bunker bat (WP 7) ageri da, baita garai bateko erpin geodesiko bat ere (kokapen geografiko zehatza adierazten duen puntua, triangelaketa sare bat osatuz beste erpin geodesiko batzuekin). Bunker hori Pirinioetako Defentsa Erakundeak edo L lerroak altxatua da, Francoren erregimenak Bigarren Mundu Gerran zehar Pirinioetako muga defendatzeko (1939-1945) eta, ondoren, aliatuen inbasio posible bat gerarazteko. Defentsa lerro horrek 250 bunker eta 600 soldadu baino gehiago zituen, eta haietatik 245. erresistentzia zentroa dugu hau, Guadalupeko Andre Mariaren gotorkeluan egondakoa.

Waypoint (WP)



4. Trikuharria



5. Monolitoa



6. Dolmen



7. Bunkerra eta artilleria plataformak



Sarbide goratua eta gezileihoak ageri dituen dorre honek oinplano karratua du, mendilerroan ageri diren gainerakoek ez bezala, beste guztiak hexagonalak baitira. Azken Karlistaldian Irun-Donostia korridorea defendatzeko lerro hartan eraikitako bosgarrena da.

Handik gutxira, Erramutz izeneko gezileihodun dorrera iritsiko gara (WP 8). Zoragarriak dira atalaia honetatik lau haizetara ageri diren ikuspegiak: itsasertza, hasi Matxixakotik eta Baiona eta Landetara iritsi arte, baita

Hondarribia, Hendaiaiko dunak (jentilen jaurtiketei egotziak), Hendaia, Donibane Lohizune eta abar ere. Halaber, ikusgai ditugu Guadalupeko Andre Mariaren ermita eta izen bereko gotorlekua, Irun, Behobia, Larrun -Pirinioak hondoan direla-, Mendaur, Ekaitza, Aiako Harria, Bianditz eta makina bat gehiago. Gure gozamina are handiagoa izango da mendi honetako harkaitzetan ahabia egiten duten sai arreen saldoen bat ikusten badugu.

Presarik gabe, ikuspegi zoragarriok miretsi ostean, egindako bidetik bueltatuko gara abiapuntura. Orotara, 2,8 km luzeko paseoa da.

Waypoint (WP)



8. Dorrea

9. Helmuga



Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.

